



2018-2019 IKASTURTEAN HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO IKASTETXE PUBLIKOETAN IKASLEAK ONARTZEKO ARAUAK

1.- Arautegia.

Ikasleak onartzeko, xedapen hauek izango dira kontuan:

- Agindua, 2018ko urtarrilaren 15ekoa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, ezartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren mendeko Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan 2018-2019 ikasturtean izena emateko eskaerak aurkezteko egutegi komuna eta onarpen-epea, bai eta ikastetxe horietan ikasleak onartzeko jarraibideak ere.
- 1/2018 Dekretua, urtarrilaren 9koa, ikasleak onartzeko eta eskolatzeko prozedura arautzen duena hezkuntza-arloko eskumena duen sailaren mendeko Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan nahiz itunpeko ikastetxe pribatuetan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Oinarrizko, Erdi-mailako eta Goi-mailako Lanbide Heziketako ikasketetan), baita oinarrizko lanbide heziketa ematen duten udal-titulartasuneko ikastetxe publikoetan ere.

2.- Aplikazio-eremua.

Aipatutako araudia ikastetxean lehen aldiz matrikulatzen diren ikasleei aplikatuko zaie. **Ondorioz, gaur egun 2 urtekoen gelan matrikulatuta dauden ikasleek ez dute berriro eskatu behar ikastetxean jarraitzeko.**

Ikastetxeko ikasleren batek 2018-2019 ikasturtean hizkuntza-eredua aldatu nahi badu, ikastetxean bertan eskatu beharko du ikasleak onartzeko ezarrita dagoen epean, eta ikastetxeez kanpoko ikasleek dituzten baldintza berak izango ditu. Eredu aldaketa hezkuntza-etapa aldatzen denean, ordea, (hau da, Haur Hezkuntzako 5 urtekoen gelatik Lehen Hezkuntzako 1. mailara edo Lehen Hezkuntzako 6. mailatik DBHko 1. mailara) atxikitako ikastetxeetatik datozen ikasleekin bezalaxe jokatu da.

3.- Hezkuntzako eskaintza.

Plangintzako Lurralde Batzordeak gaia aztertu eta gero, Lurralde Ordezkaritzak zehaztuko du ikastetxe publikoen lerro eta hizkuntza-ereduen eskaintza. Ikastetxek eskabide guztiak onartu beharko dituzte. Eskabidean lehen aukera moduan azaltzen bada ikastetxean eskaintzen



ez den hizkuntza-eredu bat, familiei jakinaraziko zaie aukeratutako eredia ez dagoela ikastetxean eta lurralde-ordezkaritzari jakinaraziko zaio, hark azter dezan eredu eta maila horretako talderik eratzetik dagoen ikastetxean bertan ala zonaldean, baldin eta eskabide-kopurua nahikoa bada eta plangintzak horretarako bidea ematen badu. Edonola ere, eskatzaileak ikastetxeko gainerako ereduak ikasleak onartzeko prozesuan parte hartuko du, prozesu horretan parte hartzeko eskatu badu.

Era berean, lurralde-ordezkaritzek izango dute ikastetxeak ematen ez dituen ikasketareduen eskabide guztiak kudeatzeko ardura. Horretarako, halako eskabideak erregistratzen dituzten ikastetxeek eskabide bakoitzari dagokion puntuazio-baremoa idatzita utziko dute aplikazio informatikoan eta eskabideari erantzen zaion dokumentazioa bidaliko dute Lurralde Ordezkaritzara.

4.- Ikasleak onartzea bermatzeko batzordeak.

Ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxeen eragin-eremuak eta mugakideak zehazteko asmoz, ikasleak onartzea bermatzeko egungo batzordeek jarraitu egingo dute beren egitekoak betetzen irailaren 7ra arte; izan ere, orduan berrituko dira, eta ikastetxeei sasoiz jakinaraziko zaie, aginduak ezarritako epeetan barematu ahal izan ditzaten eskaerak.

5.-Gehienezko ratioak.

Hona 2018-2019 ikasturterako ezarritako gehienezko ratioak:

a) adin bereko ikasle-taldeak:

Haur Hezkuntza:.....(2 urte)	18 ikasle
Haur Hezkuntza:.....(3-5 urte)	23 ikasle
Lehen Hezkuntza:.....	25 ikasle

b) adin desberdinetako ikasle-taldeak:

bi adin desberdinetako ikasleak (2 eta 3 urtekoak)	18 ikasle
bi adin desberdinetako ikasleak (gainerako kasuetan)	20 ikasle
hiru adin desberdinetako ikasleak	15 ikasle
hiru adin baino gehiagoko ikasleak	12 ikasle

6.-Gutxienezko ratioak.

Sarrera-mailetan ez da 11 ikasle baino gutxiagoko gelarik onartuko, Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzak baimentzen dituen aparteko kasuak izan ezik

Aurreko ikasturtearekin alderatuta taldeen kopurua handituz gero, Hezkuntza ordezkararen baimena beharko da.

Ezarritako gutxienezko kopurura ez iristeagatik ikasle guztiak onartzerik ez badadago, Ordezkaritzak hurbilen dagoen ikastetxera bideratuko ditu ikasle horiek.



7.- Banaketak.

Ezin izango dira ikasleak tarteko kurtsoetan matrikulatu, baldin eta ondorioz taldeak bikoiztu behar badira. Horregatik, errepikatzailen aurreikuspenak kontuan hartu beharko dira, kurtso horietan matrikulatzeko.

Ikasle errepikatzailerek gela bikoiztea eraginez gero, horren berri eman beharko zaio Ikastetxeen Lurralde Burutzari. Jakinarazpena aurrez egin beharko da, ikastetxearen plangintza egokiro egin ahal izateko.

8.- HPB dituzten ikasleak.

Lurralde Ordezkaritzak zentralizatuko ditu **hezkuntza-premia berezietako ikasleak onartzeko** eskaerak eta, beharrezkotzat jotzen duenean, eskolatzeko tokia eta baldintzak erabakiko ditu. Horretarako kontuan hartuko ditu ikasleen ezaugarriak eta ikastetxeek dituzten baliabideak.

9.- Hizkuntza-ereduz aldatzea.

Ikastetxearen hizkuntza-eredua aldatzea baimentzeko, Euskal Eskola Publikoaren Legeak xedatzen duena aplikatuko da. Lege honek 21. artikuluan hau zehazten du: “Hezkuntza Administrazioak eman ahal izango du hezkuntza-maila batetik bestera pasatzean hizkuntza-eredua aldatzeko baimena, betiere gurasoen eskaera nahikoa baldin badago eta plangintzak horretarako aukera ematen badu”.

Aipatutako 21. artikulua horretan xedatutakotik ondoriozta daitekeenez, hezkuntza-maila bakoitzaren hasieran baimendu behar dira hizkuntza-ereduen aldaketak (Haur Hezkuntzako 2. urteko gela, 2. zikloko 1.a eta Lehen Hezkuntzako 1.a).

10.- Matrikulak egiteko prozedura.

10.1.- Argibideak

Ikastetxeek alderdi hauei buruzko informazioa emango diete eskatzaileei:

- Aurkeztu behar dituzten egiaztagiriak, baremoaren atal desberdinak balora diezazkieten.
- Ikaslearen ibilbidea, ikastetxe horretan lehen aldiz matrikulatzen denetik unibertsitateaz kanpoko araututako irakaskuntzaren etapak bukatu arte.
- Informazio hori idatziz emango zaie eskatzen duten guztiei.

Era berean, informazio hau jarri beharko da iragarki-taulan:

- a) Ikasleak ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan onartzeko araudia.
- b) Ikastetxearen eragin-eremua eta eremu horren mugak.
- c) Eskabideak egiteko epea.
- d) Prozesuaren egutegia, onartu eta kanpoan utzitako ikasleen zerrendak argitaratzeko eguna eta erreklamazioak egiteko epeak.



- e) Ordezkaritza Organo Gorenak emandako puntuak zehazteko irizpideak: urtarrilaren 26ra arte ikastetxe bakoitzak dokumentu bat sartu beharko du aplikazio informatikoan. Dokumentu horretan zehaztuko ditu puntuazioa emateko irizpideak. Hala, eskabidea bide telematikotik egiten dutenek informazio hori eduki ahal izango dute eskura. Dokumentu horren beraren kopia erakutsiko da zentroko iragarki-oholean.
- f) Eskabideak aurkezteko epean ikastetxeko idazkaritzak jendeari erantzuteko duen egutegia eta ordutegia.

10.2.-Ikasleak onartzeko epea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Eskabideak onartzeko epea urtarrilaren 29tik otsailaren 9ra arte (biak barne) izango da.

Eskaera guztiek ondorengo dokumentazioa izan beharko dute:

- Ikaslearen eta haren gurasoen familia-liburuko orrien fotokopiak edo egiaztagiri bat (epaiaren edo ziurtagiriaren fotokopia), pertsona hori ikaslearen legezko tutorea dela dioena.
- Ikaslearen aitaren, amaren edo legezko tutorearen NANaren (AITrena atzerritarren kasuan) kopia.
- Familiaren egoitzaren ziurtagiria, Udalak egina, hiru hilabeteko antzinatasuna izango duena, gehienez ere.
- Hezkuntza Sailak ezarritako berezko protokoloa bete izanaren agiria, familia banandua edo dibortziatua bada.
- Hezkuntza-premia bereziei buruzko galdetegia, beharrezko denean.
- EAEtik kanpo eskolatutako ikasleen kasuan, egindako ikasketen ziurtagiria, argi eta garbi adieraziz zer maila egiten ari diren une horretan.
- Era berean, barematzean puntuak lortzeko behar diren baldintzak betetzen direla dioten egiaztagiriak aurkeztu beharko dira.

10.3.- Eskabideak izapidetzea

Eskaera aitak, amak edo ikaslearen legezko tutoreak aurkeztu behar du.

Guraso banatuen edo dibortziatuen edo elkarbizitza eten duten izatezko bikoteen kasuan, informazioa eskatzeko eta ikastetxea aldatzeko Ikastetxeen Zuzendaritzak emandako Jarraibideek zehazten duten prozedura jarraituko da.

Eskabide bakarra egin, eta ikastetxe batean baino ezingo da aurkeztu. Interesdunak berak bete ahal izango du, bide hauetakoren bat erabiliz:

- on line, Hezkuntza Sailak horretarako prestatzen duen aplikazio informatikoaren bidez. Gero, eskabideak izapidetzen dituenean, datuak egiaztatuko ditu ikastetxeak, eta, zuzendu behar baditu, zuzendu egingo ditu.
- lehen aukera moduan hautatutako idazkaritzan. Bertan sartuko dira aplikazio informatikoan eskatzaileak jarritako datuak.

a) On-line eskabidea

- On-line eskabidea otsailaren 8ko 24:00ak arte egin ahal izango da, orduan utziko baitio aplikazioak aktibo egoteari.

- Eskabidearekin batera, eskatutako dokumentuak aurkeztuko dira, eskaneatuta.



- Eskabidea bete ondoren, sartutako datuak eta dokumentuak berrestea edo konfirmatzea eskatuko du programak. Ondoren, alta emango dio eskabideari, eta frogagiri bat emango du, eskabidean jasotako datu guztiekin.

- Behin eskabideari alta emanda, eta hautatutako zentroak eskabidea hartu arte, eskatzaileek aukera izango dute grabatutako datuak aldatu edo zuzentzeko, aplikazio berberaren bitartez. Gero ere eskatu ahal izango dute aldaketak egitea, otsailaren 9ra arte —egun hori barne hartuta—, lehenengo eskatu duten zentrorantz bertara joanda.

b) Eskabidea zentroan bertan egitea

- Eskatzailea lehenengo eskatutako zentrorantz joango da, idazkaritza-orduetan, otsailaren 9ra arte —egun hori barne hartuta—, eta aurkeztu nahi duen dokumentazioa eramango du.

- Eskabideko datuak aplikazioan kargatu eta dokumentazioa egiaztatu eta gero, eskatzaileari datu-orri bat erakutsiko dio ikastetxeak; bertan jasoko dira: datu pertsonalak, egindako eskaerak, barematzeko alegatutako egoerak eta aurkeztutako agirien zerrenda.

- Eskatzaileak datuok aztertu, eta zuzentzat jotzen baditu, datu-orria sinatuko du. Ikastetxeak zigilua jarriko du datu-orri sinatuan eta aurretiaz sartu dituen datuak baliozkotzat joko ditu. Datu orri hori eskaeren frogagiritzat eta egiaztagiritzat erabiliko da, sinatuta eta zigilua jarrita duenean.

- Eskatzaileek otsailaren 9ra arte izango dute, egun hori barne, grabatutako datuen bat aldatzeko edo zuzentzeko eskatzeko. Eskabidea zein ikastetxetara entregatu, ikastetxe horrek egin beharko ditu aldaketak. Data horretatik aurrera ez da zuzenketarik onartuko.

- Ezer aldatzeko, eskatzaileak nahitaez aurkeztu beharko du laugarren atalean aipatutako jatorrizko eskabide orri sinatu eta zigilatua. Egin beharreko zuzenketak egin eta gero, beste datu-orri bat emango zaio, sinatuta eta zigilatuta; gero, zaharra apurtu, eta azkenean ikastetxeak datu berriak baliozkotu egingo ditu.

c) Arau komunak

- Inskripzio-eskabide bakarra aurkeztuko da, eta ikastetxe bitan edo gehiagotan eskabidea aurkeztuz gero, ikastetxea aukeratzeko eskubidea galduko da. Nolanahi ere, interesdunak entzunaldiko izapidea izango du, nahitaezkoa baita. Ondorioa, bikoiztutako eskabideak azkenengoz izapidetuko dira, epe barruan aurkeztutako gainerako eskabideei plazarik esleitu eta gero.

- Epetik kanpo ez da eskabiderik onartuko. Epe barruan egindako matrikula-eskabide guztiak onartu eta izapidetu beharko dituzte ikastetxeek, eskola-posturik egon edo egon ez eskatutako maila eta hizkuntza-eredu guztietarako, eta gero barematu egin beharko dituzte.

- Haur Hezkuntzako maila bat egin nahi duten ikasleek ikasturtea hasi den urtean duten adinari dagokion maila eskatu beharko dute. Ikasle eskatzailea Haur Hezkuntzako bigarren zikloko hirugarren maila edo Lehen Hezkuntzako maila bat egiten ari bada, une horretan egiten ari dena baino maila bat gorago onartzeko eskatu behar du.

- Gehienez ere 3 ikastetxe aukeratu ahal izango dira eta, hiruretan, lehentasun-ordenaren arabera aukeratuko dira hizkuntza-ereduak, kontuan hartu gabe eredu horiek ikastetxean ematen diren ala ez.
- Eskabideko datuak balidatzeko unean, aplikazio informatikoak hurrenkera-zenbaki bat esleituko dio eskabideari, erabateko ausazkotasunez esleitu ere: 1 eta 999999ren arteko zenbaki oso bat, alegia. Zenbaki hori erabiliko da egon litezkeen berdinketak hausteko; betiere, berdinketa hausteko gainerako irizpide guztiak aplikatuta ere berdinketak bere horretan badirau. Kasu horretan, aplikazio informatikoak eskabide guztiak txikienetik nagusienera ordenatu, eta txikienari emango dio lehentasuna.
- Bi anai-arreba hezkuntza-maila berean daudenean eta baremo-puntuazio berdina dutenean, ausazko prozeduran emaitza okerragoa lortu duen anai-arreba emaitza hobe atera duenaren ondoan jarriko du zerrendan aplikazio informatikoak, hurrengo postuan hain zuzen.
- Eskabideko datuak aldatuta ere, inoiz ez da aldatuko hurrenkera-zenbaki hori, hots, eskabidea lehenengo aldiz egin zenean ausaz esleitu zitzaiona.

10.4.- Datuak aldatzea eta uko egitea.

Otsailaren 9a izango da eskabidean jasotako datuak aldatu edo zuzentzeko azken eguna. Horretarako, frogagiria (on-line bidez egin bazen) edo ikastetxeak sinatu eta zigilua eman zuen datu-orria (aurrez-aurre egin ba zen) aurkeztu beharko da.

Martxoaren 14ra arte eskabideari uko egin ahal izango zaio. Horretarako, eskatzaileak uko egiteko idazkia aurkeztu beharko du eskatu zuen lehenengo ikastetxean (on line) edo eskabidea entregatu zuen ikastetxe berean (aurrez-aurre). Uko eginez gero, eskabidean jasotako aukera guztiei uko egingo zaie. Azkenik, ikastetxeak idazki hori artxibatuko du, bere egunean aurkeztutako eskabidearekin batera.

10.5.- Eskatzaileen zerrenda:

Eskaerak aurkezteko epea bukatu eta matrikula-datuak ontzat eman ostean, otsailaren 20an, ikastetxeko iragarki -taulan argitaratuko da kurtso guztietako eskatzaileen zerrenda, ikasle guztien izen-abizenekin eta eskatutako hizkuntza-ereduekin.

10.6.- Barematzea:

Ez da eskaerarik barematuko eta eskatzaile guztiak onartu egingo dira, baldin eta eskatutako plazak eskainitakoak beste edo gutxiago badira.

Eskaerak barematu behar dituzten ikastetxeetan, aplikazio informatikoak puntuazio-hurrenkeraren arabera ordenatuko ditu eskabideak, kontuan hartuta zerrendako ordena eta hizkuntzei jarritako lehentasuna.

Ratioaz gainetik inoiz ezin izango da ikaslerik hartu, nahiz eta neba-arrebak, bikiak, hirukiak eta abar izan.

**Eskaerak barematzeko, OOGk irizpide hauek erabiliko ditu:**a) Urteko errenta eta adin txikiko anaia-arrebak (gehienez ere, 1,5 puntu)

Familia-unitatearen diru-sarrereren mailagatik ematen den puntuazioa eskuratu ahal izateko, Foru Ogasunari zerga-datuak eskatzeko baimena izenpetu beharko zaio Sailari. **Errenta-aitorpena EAeko edozein Foru Ogasunetan aurkeztu ez zutenek, bere aitortpenaren fotokopia aurkeztu beharko dute.**

Errentaren atalean puntuatzeko eskubidea izateko (0,5 puntu), diru-sarrera konputagarriak izango dira familia-unitateko kide guztiek 2016ko zerga-ekitaldian izandako zerga-oinarri orokorrari eta aurrezkiaren zerga-oinarriari dagozkionak.

Eskatzaileen errenta-aitorpena egiaztatu arte, kontuan hartuko dira egiaztatzeko baimena eman duten lagunen puntuazioak. Dena den, datuak egiaztatu eta gero, aldatu ahal izango dira, onartu eta baztertutakoen zerrendak prestatzeko.

Datuak egiaztatu eta horien emaitzak jaso eta gero, eta errenta baloratzeko, Ogasunak egiaztatutakoak emango dira ontzat.

Edonola ere, diru-sarrerak zein diren alde batera utzita, 0,25 puntu emango dira ikaslearen adin txikiko anaiako/arrebako eta bakoitzaren familia-liburuaren fotokopia aurkeztu beharko da.

b) Helbidearen hurbiltasuna (gehienez ere, 5 puntu)

Kode Zibilaren arabera (154. artikulua, 40. artikuluari begira), gurasoek guraso-agintea galtzen duten kasuetan izan ezik (behar bezala egiaztatua), ondorengoetako bat izan beharko du, legez, emantzipatu gabe dauden adin txikikoen seme-alaben helbidea:

1. Guraso-agintea duten gurasoetako edozeinena.
2. Epaileak zaintza eman dion aitarena edo amarena, bereizketa, dibortzio edo ezkontza-baliogabetasunaren kasuetan.
3. Legez guraso-agintea duen tutorearena.

Odol-kidetasuna gorabehera, eskolatzeko ez da aintzakotzat hartuko beste senide batzuen helbidea.

Hona helbidearen puntuazioa: 5 puntu, bizilekua ikastetxearen eragin-eremuan badago; 2 puntu, mugakidea bada, puntu 1 ikastetxea dagoen udalerrian baina haren eragin-eremutik eta eremu mugakideetatik kanpo kokatuta baldin badago edo 0,5 puntu bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan izatea, baina ikastetxea kokatuta dagoen udalerritik eta eragin-eremu zein eremu mugakideetatik kanpo bada. Puntu horiek ez dira metatuko.

Erroldatze-ziurtagiria aurkeztu beharrean helbidea eragin-eremuan duen aitaren, amaren edo legezko tutorearen enpresaren ziurtagiria aurkezten bada, enpresaren helbideari dagokion puntuazioa (2 puntu) emango da. Helbide hori familia-helbidearen alternatiboa da eta, ondorioz, ezin da puntuazioa metatu. Era berean puntu hauek ezin dira batu ikaslearen aitak, amak edo legezko tutoreak eskatutako ikastetxean lan egiteagatik eskuratu daitezken puntuekin.



- c) 17/18 ikasturtean Ikastetxean edo atxikitako ikastetxeetan dauden senideak (gehienez ere, 9 puntu)

9 puntu emango dira ikastetxean edo atxikitako ikastetxeetan anaia/arreba bat izateagatik. Atxikitako ikastetxeen kasuan, ikastetxearen ziurtagiria aurkeztu beharko da, familia-liburuaren kopiarekin batera. Horretarako, sare publikoan, Hezkuntzako lurralde-ordezkariek emandako ebazpenetan ezarritako atxikipenak aplikatuko dira, urtarrilaren 9ko 1/2018ko Dekretuan 7. artikuluan xedatutakoa ezarri.

Atal honetako puntuazioa jaso ahal izateko, kontuan hartuko da bakar-bakarrik Hezkuntza Sailak araututako ikasleak onartzeko prozedurari jarraituz, mailaren batean neba-arrebak matrikulatuta izatea.

Aitak, amak edo tutoreak eskatutako ikastetxean edo ikastetxe horri atxikitako ikastetxe batean lan egiten badu, 7 puntu emango dira (puntu hauek ezin dira batu ikaslearen aitak, amak edo legezko tutoreak eskatutako ikastetxearen eragin-eremuan lan egiteagatik eskuratu daitezkeen puntuekin).

- d) Familia ugariko kide izatea.

Maila bereziko familia ugariko: 1,5 puntu; Maila orokorreko familia ugariko: puntu 1.

- e) Familia-harreran egotea:

Ikaslea familia-harreran egoteagatik: puntu 1.

- f) Desgaitasuna (gehienez ere, 2 puntu).

2 puntu emango dira ikaslearen elbarritasunarengatik eta puntu 1 haren aita, amaren, tutorearen, edo anaiaren/arrebaren elbarritasunarengatik, hura behar bezala egiaztatuz gero. Egoera hori ezin zaio familiako kide bati baino gehiagori zabaldu.

- g) Kooperatiba-bazkide izatea.

Familia unitateko kideren bat eskatutako ikastetxeko kooperatiba-bazkide izateagatik: 0,5 puntu.

- h) Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak ezarritako beste egoera adierazgarri batzuk.

Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak askatasunez erabakitako irizpideak (aurrez adierazitakoak ere izan daitezke), eta ezartzeko irizpide publiko, objektibo eta ez-diskriminatzaileak erabiliko dira: puntu 1, gehienez ere (irizpideak ezagutzera emango dira eskabideak aurkezteko epea ireki baino lehen).

Eskaerarekin batera entregatu beharko da baremoaren atalak egiaztatzeko dokumentazio guztia eta eskaerak onartzeko epea itxi ondoren ezin izango da agiri gehiagorik onartu.

Baremoaren atalen bat egiaztatzeko dokumentazioa ez ekartzeak esan nahi du atal horren puntuazioari uko egiten zaiola.



11.- Onartutakoen eta kanpoan utzitakoen behin-behineko zerrendak.

Onartutako eta kanpoan utzitako ikasleen behin-behineko zerrendak martxoaren 1ean argitaratuko dira ikastetxean. Bikoiztutako eskabideak azkenak izapidetuko dira, hau da, epe barruan aurkeztutako gainerako eskabideei plazak esleitu eta gero.

Eskaerak ez badira barematu behar, onartutako behin-behineko zerrendak kurtsoka eta ereduak agertuko dira, eta ikasleen datu pertsonalak bakarrik jasoko dira: ikaslearen izen-abizenak, alfabetikoki ordenatuta.

Eskaerak barematu behar badira, ikasle bakoitzak guztira lortutako puntuazioaren arabera ordenatu beharko dira onartutako eta kanpoan utzitako ikasleen zerrendak, mailaka eta ereduak berezita. Zerrenda horietan agertu beharko dute, ikasleen datu pertsonalak (izen-abizenak), baremoren atal guztietan lortutako puntuazioak eta guztira lortutakoak.

Ikastetxeko OOGri edo martxoaren 14ra arte aurkeztu beharko zaizkio onartutako eta kanpoan utzitako ikasleen behin-behineko zerrenden kontrako erreklamazioak. Erreklamazio horiek ikastetxeko OOGk edo ebatzi beharko ditu, eta onartzen badira, programako datuak aldatu egin beharko dira.

12.- Behin betiko zerrendak.

Behin-behineko zerrendeiei aurkeztutako erreklamazioak ebatzi eta programako datuak aldatu ostean, martxoaren 22an argitaratu beharko dira ikastetxean onartutako eta kanpoan utzitako ikasleen behin betiko zerrendak.

13.- Bigarren eta hirugarren aukerak.

Lehenengo aukeratzat jarritakoa lortu ez duten ikasleei bigarren eta hirugarren aukerak esleituko dizkie aplikazio informatikoak. Aplikazio horren bitartez, lehenengo aukera moduan hautatutako ikastetxeak eta esleitutako ikastetxeak jasoko dituzte zerrenda horiek, eta ikastetxe bietan argitaratuko dira apirilaren 11n.

Bigarren eta hirugarren aukeren esleipena batera egingo da, lehenengo aukeran lortutako puntu kopuruari lehenengo ikastetxeak ezarritako irizpideei dagozkien puntuak kendu ondoren.

Berdinketa hausteko zenbakia aplikazio informatikoak emango du eskabide orriaren datuak egiaztatzerakoan.

14.- Prozesua amaitzea.

Azkenean, libre geratzen diren ikaspostuak eskaini ahal izango dizkie Lurralde Ordezkaritzak ikasleei, baldin eta eskatutako ikastetxeetan plaza lortu ez badute.

Behin betiko zerrenden kontra, gorako errekurtsioa jarri ahal izango zaio lurralde-ordezkaritari apirilaren 23ra arte.

Epearen barruan aurkeztutako eskaera guztiei plaza eman ondoren hartuko dira kontuan epez kanpo aurkeztutako eskaerak.



15.- Erljioa.

Indarrean den legeriak xedatutakoaren arabera, ikastetxeek derrigorrean eskaini beharko dute erlijioa irakasgaia eta aukerakoa izango da ikasleentzat.

Ikasleak ikastetxean sartzerakoan, bere gurasoek edo tutoreek erlijio ikasgaia egin nahi duten edo ez adierazi beharko dute; eta nahi badute eskaintzen diren erlijioen artean zein hautatzen duten adieraziko dute. Ikastetxe horretan eskolatze-aldi osorako erabakia izango da, familiak hura aldatzeko eskaera idatziz aurkeztu ezean.

Ikastetxe bakoitzak beharrezkoak diren bitartekoak jarriko ditu horri buruzko informazioa eguneratuta edukitzeko, eta apirilean informazioa jakinaraziko dio hezkuntza-administrazioari, hark hurrengo ikasturtea behar bezala planifikatu ahal dezan.

Arau hauek jasotzen ez duten edozein alderditarako, 1. puntuan ezarritako araudiaren arabera jokatu da.

Begirunez,

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urtarrilaren 24a.

Eugenio Jimenez Ibañez
IKASTETXE ETA PLANGINTZA ZUZENDARIA